

# BESTELAKO XEDAPENAK

INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKO ETA JASANGARRITASUNAREN SAILA

## 729

*EBAZPENA, 2026ko otsailaren 5ekoa, Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko Bizkaiko lurralde-ordezkarirena, zeinaren bidez deklaritzen baita onura publikokoa dela «Miraballes-Zeberio cto. 4» izeneko 13,2 kV-eko erdi-tentsioko aireko linean zuhaitzik gabeko zerrenda handitzeko proiektua, Miraballes TEAren (4530) eta 9049 euskarriaren arteko zatian; Ugao-Miraballes, Arrankudiaga-Zollo, Arrigorriaga, Zeberio eta Artea udalerrietan (Bizkaia).*

Espedientea: 48-AT-Y-2023-108.

### AURREKARIAK

1.– 2023ko irailaren 18an, i-DE Redes Eléctricas Inteligentes SAU enpresak eskatu zuen onura publikokotzat deklaratzeko «Miraballes-Zeberio cto.4» izeneko 13,2 kV-eko erdi-tentsioko aireko linean zuhaitzik gabeko zerrenda handitzeko proiektua, Miraballes TEAren (4530) eta 9049 euskarriaren arteko zatian, Ugao-Miraballes, Arrankudiaga-Zollo, Arrigorriaga, Zeberio eta Artea udalerrietan (Bizkaia).

2.– Bizkaiko Lurralde Ordezkaritzak egiaztatu du, proiektuaren ezaugarriak direla-eta, ingurumen-inpaktuaren ebaluazio arrunta egin behar zaiola. Sustatzaileari eskatzen zaio aurkeztu dezala ingurumen-inpaktuaren adierazpena egin ahal izateko behar den dokumentazioa.

3.– Eusko Jaurlaritzaren martxoaren 31ko 48/2020 Dekretuaren 10. artikuluan eta Abenduaren 1eko 1955/2000 Errege Dekretuaren 144. artikuluan, aipatutako eskaera jendaurrean jartzeko iragarkia argitaratu zen 2024ko uztailaren 30eko EHAAren, 2024ko uztailaren 19ko BAOren, Ugao-Miraballes, Arrankudiaga-Zollo, Arrigorriaga, Zeberio eta Arteako udalen iragarki-tauletan eta Deia egunkarian, 2024ko uztailaren 29an.

4.– 2024ko uztailaren 15ean, egoki iritzitako baldintza teknikoak aurkezteko eskaera bidali zitzaion Ugao-Miraballes, Arrankudiaga-Zollo, Arrigorriaga, Zeberio eta Arteako udalei. Arauzko epeen barruan, ez zen alegaziorik aurkeztu.

5.– 2024ko uztailaren 9ko iragarkiaren bidez, jendaurrean jarri zen ingurumen-inpaktuaren azterketa, 2024ko uztailaren 30eko EHAAren, 2024ko uztailaren 19ko BAOren eta 2024ko uztailaren 29ko Deia egunkarian argitaratua.

2024ko abuztuaren 6an, Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko Kultura Ondarearen Zuzendaritzaren alegazioak jaso ziren. Horiek i-DEra eramaten dira, eta hark onartu egiten ditu.

2024ko irailaren 25ean, Eusko Jaurlaritzako Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzaren alegazioak jaso ziren. Horiek i-DEri helarazten zaizkio, eta zuzendaritzak planteatutako gaiak argitzen eta zehazten dituen informazioa ematen du.

6.– 2025eko urtarrilaren 15ean, Bizkaiko Lurralde Ordezkaritzak ingurumen-inpaktuaren adierazpena eskatu zion Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritzari, «Miraballes-Zeberio cto. 4» izeneko 13,2 kV-eko erdi-tentsioko aireko linean zuhaitzik gabeko zerrenda handitzeko proiekturako, Miraballes TEAren (4530) eta 9049 euskarriaren arteko zatian.

7.– Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritzak Ingurumen Administrazioaren zuzendariaren 2025eko martxoaren 31ko Ebazpena eman zuen, zeinaren bidez formulatzen baita «Miraballes-Zeberio cto.4» izeneko 13,2 kV-eko goi-tentsioko aireko linearen zuhaitzik gabeko zerrenda handitzeko proiektuaren ingurumen-inpaktuaren adierazpena, Miraballes TEAren (4530) eta 9049 euskarriaren arteko zatian, Ugao-Miraballes, Arrankudiaga-Zollo, Arrigorriaga, Zeberio eta Artea udalerrietan (Bizkaia). 2025eko maiatzaren 7ko EHAA n argitaratu zen.

8.– 2025eko apirilaren 28an, María Piedad Ayesta Larracochea andreak alegazioak aurkeztu zituen. Besteak beste, adierazi du i-DEK, alde batetik, bere lursailaren barruan duen Aire zabaleko transformazio-zentroa (ZTB) ordeztu nahi duela (potentzia handiagoko transformadore bat instalatu nahi du, linearen euskarria eta tentsio-maila aldatuz); eta, bestetik, lineak gaur egun duen zortasuna handitu nahi duela. i-DEK alegazioak helarazi zaizkio, eta horrek ZTB ordeztearekin lotutakoei erantzuten die, bai eta zortasuna zabaltzearekin lotutakoei ere. Zortasuna handitzeari dagokionez, i-DEK adierazten du ez dela inoiz aldatzen eroaleek muturretan markatutako egungo zortasuna, linearen mantentze-lanak baitira.

## ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.– Bizkaiko Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko Lurralde Ordezkaritza da espediente hau izapidetzeko eta ebazteko organo eskuduna, Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen abenduaren 3ko 410/2024 Dekretuaren 20. artikuluan xedatutakoaren arabera.

2.– Espedientean, arauzko izapide hauek bete dira: 24/2013 Legea, abenduaren 26koa, Sektore Elektriokoari buruzkoa; 1955/2000 Errege Dekretua, abenduaren 1ekoa, Energia elektrikoaren instalazioen garraioko, banaketako, merkaturatzeko eta hornidurako jarduerak eta baimentze-prozedurak arautzen dituena; 48/2020 Dekretua, martxoaren 31koa, Eusko Jaurlaritzarena, eta bat datozen gainerako legeak.

3.– Sektore Elektriokoari buruzko 24/2013 Legearen 54. artikulua onura publikokotzat deklaratu ditu energia elektrikoaren banatzeko instalazioak, horiek ezartzeko beharrezkoak diren ondasun eta eskubideen nahitaezko desjabetzea egiteko eta bide-zorra ezarri eta erabiltzeko. Deklarazio horrek berekin dakar ondasun eta eskubide horiek okupatu beharra eta presaz okupatu beharra, lege horren 56. artikuluan eta Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 52. artikuluan ondorioetarako.

4.– Energia eta Meategien zuzendariaren 2011ko martxoaren 8ko Ebazpena, goi-tentsioko aireko linea elektrikoak zuhaitzetatik igartzeko berriazko preskripzioak ezartzen dituena.

5.– 10/2021 Legea, abenduaren 9koa, Euskadiko Ingurumen Administrazioarena (2021-12-31ko EHAA) eta 21/2013 Legea, abenduaren 9koa, Ingurumen Ebaluazioari buruzkoa (2013-12-11ko BOE).

6.– Piedad Ayesta Larracochea andreak aurkeztutako alegazioei dagokienez, kontuan hartu behar da Aire zabaleko transformazio-zentroa ordeztuari buruzkoak ez direla proiektu honen xede, eta dagoeneko hasita dagoen eta ordezkari honetan izapidetzen ari den beste espediente bati dagozkiola. Zortasuna handitzeari dagokionez, 2011ko martxoaren 8ko Ebazpena betetze aldera, zehatz-mehatz zehazten da azaroaren 28ko 3151/1968 Dekretuaren bidez onartutako Goi-tentsioko aireko linea elektrikoaren Erregelamenduaren 35. artikuluan ezarritako mozketak-betebeharra. Horrela, linearen babes-eremua zehazten da, zeina aireko zortasun-eremuak eta zuhaitzak mozteko eremuak osatzen baitute. Beraz, ez da zortasun berririk sortuko, baizik eta zuhaitzak mozteko

eremua zehaztuko da. Eremu hori muturreko eroaleen lurzoruaren gaineko proiektiotik osatuko da (egoerarik txarrean, hegalkin-zortasuna deritzona), zuhaitzen oinarritik gutxienez 8 metrora handituta.

2026ko otsailaren 3ko Bizkaiko Lurralde Ordezkaritzako energia-arloaren aldeko txostena.

Aipatutako lege-xedapenak ikusita, eta oro har zein zehazki aplikagarri diren gainerakoak oinarritzat hartuta, eta ordezkaritza honetako energia-arloaren aldeko txostenarekin bat etorriz, Bizkaiko Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko lurralde-ordezkariek honako hau

#### EBAZTEN DU:

Onura publikokoa dela deklaratzeko, zehazki 13,2 kV-eko «Miraballes-Zeberio cto. 4» izeneko linea elektrikoaren babes-eremua handitzea, Miraballes TEAren (4530) eta 9049 euskarriaren arteko zatian; Ugao-Miraballes, Arrankudiaga-Zollo, Arrigorriaga, Zeberio eta Artea udalerrietan (Bizkaia).

Deklarazio horrek berekin dakar, abenduaren 26ko 24/2013 Legearen 56. artikuluan xedatutakoaren arabera, ondasunak okupatu edo eskuratutako eskubideak hartu beharra, eta okupazioa, gainera, presaz egin beharra. Deklarazioak, halaber, Jabetza Kentzeari buruzko 1954ko abenduaren 16ko Legearen 52. artikulua presaz okupatzeko deklarazioari dagokionez ezartzen dituen ondorioak dakartza, 53. artikuluan zehaztutako erregistro-ondorioekin.

Ebazpen honek ez du administrazio-bidea amaitzen, eta beronen aurka gora jotzeko errekurtsioa jar dakioke Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasun Saileko Deskarbonizazioko zuzendariari, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, eta hori guztia Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. artikulua arabera.

Bilbao, 2026ko otsailaren 5a.

Bizkaiko Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko lurralde-ordezkaria,  
MARÍA JESÚS MARKAIDA URIARTE.